

Gazteak kaletik baserrira

Bideoa ikusi ondoren, erantzun galdera hauei:

1. Zer ikasi du Vanesak?
 - a) Sukaldaritza
 - b) Psikologia
2. Vanesak, nola pasatzen du eguna?
 - a) Gazta egiten
 - b) Oiloak zaintzen
 - c) Ikasten
3. Jon, norekin bizi da baserrian?
 - a) Bakarrik
 - b) Emaztearekin eta bi seme-alabekin
 - c) Lagunekin
4. Zer egiten du Jonek?
 - a) Mamia
 - b) Gazta
 - c) Oiloak zaintzen ditu

Transkripzioa

Gazteak kaletik baserrira

Askotan esan izan da gero eta jende gutxiagok erabakitzen duela baserrian bizitzea. Baina, azken urteotan bizimodu horren aldeko apustua egin duen hainbat gazte aurki ditzakegu (ahal ditugu).

Vanesa Barriuso eta Jon Arregi kalean jaio ziren, baina baserrian topatu dute ogibidea.

Vanesak psikologia ikusi zuen eta egun, oiloak hazten ditu, eta Jonek gaztak egiten ditu. Lan gogorra omen da, baina gustura daude hautatu duten bizimodu berriarekin.

Transkripzioa

ESATARIA.- Vanesa Barriuso donostiarra da, Gros auzokoa, baina orain Urrietako Basitegi baserrian bizi da. Psikologia ikasi zuen baina bete-betean oiloak zaintzen pasatzen du eguna. Horixe du ogibidea.

VANESA BARRIUSO.- baserri hau erosteko aukera izan nuen. Eta argi izan nuen nire bizitza baserri-munduaren inguruan nahi nuela.

ESATARIA.- Jon arregi ere kale-umea da, usurbildarra. Baina bere emaztearekin eta bi seme-alabekin Zerainen, Garoa baserrian, bizi da. Aurretik bikoteak sukaldari-ikasketak egin zituen.

JON ARREGI.- Ba ez ginen ikusten. Edo ez nintzen ikusten ba sukalde batean lanean bizi guztirako. Eta orduan, mendia ere gustatzen zitzaigun, animaliak ere bai, batez ere ardiak. Eta orduan erabaki nuen ba artzain batekin frogatzea lanbide hori nola zen.

ESATARIA.- Lan handia izan arren, ofizioa guztiz erakargarria dela diote (esaten dute).

JON ARREGI.- Gure ardietatik biltzen dugun esne horrekin ba gazta egiten dugu, eta gazta hori saltzen dugu eta orduan dena, kate hori guk eramateak ba asko konpentsatzen du.

ESATARIA.- Eta noski, aisialdirako denbora ere ateratzen dute.

VANESA BARRIUSO.- Nire bizitza hemen egiten dudala, baserrian, baina bai joaten naizela Donostiara buelta ba ematera. Azkenean, bi bizitzak ondo konbinatu daitezke (ahal dira).

ERANTZUNAK

1. Psikologia
2. Oiloak zaintzen
3. Emaztearekin eta bi seme-alabekin
4. Gazta